



Gugan hautematen dugun hutsunea, askotan hitzik gabeko une luzeetan islatzen dena. “Eta hitzik gabeko uneak” diodanean, pentsamendurik gabeko uneak ditut gogoan bereziki. Horrelakoak gara. Beharbada, ezerezatik gatzelako proba garbia: gure aurrean paratzen garenean burua erabat hutsik daukagula; ez pentsamendurik ez ideiarik ez esaldirik daukagula... Ezer ez. Hain zuzen, aurrean daukagunari begira gaude, besterik gabe. Horrek urduri jartzen gaitu; esaterako, kalean banku batean eseri eta burutik ez pentsamendurik ez ezer igarotzen ez zaigula, urduri jartzen gara. Ez da atsegina. Horrek ezerezera hurbiltzen gaituelako. Beharbada, animalia ere sentiarazten gaitu. Baina hori ez da txarrena; hori, azken finean, jasangarria izango litzateke. Txarrena da sentitzea barruan daukagun ezerez handi hori gure sortzetiko “etxea” izan daitekeela. Gure jatorria alegia. Agian, hitza asmatu genuen horretarako, gure jatorri hutsalari bizkar emateko, amesteko zerbait ginela eta nonbaitera gindoazela; gure existentzia, bai gizabanako gisa bai gizarte-ente gisa, xede baterantz, helburu baterantz bideratuta zegoela. Eta orduan “Jainkoak berba asmatu zuen”. Esaldi hori Biblian ager liteke. Zergatik ez? “Berba” oso kontzeptu preziatua da jainkozko liburuan: berbatik omen gatoz... Nik, ordea, hor ikusten dut gizakiaren enegarren auto-engainua, auto-ziria. Ezin gure izaera ezdeusa eraman, jasan. Beraz, berbatik gatoz, hitzezko itsaso batetik gatoz, “gu baino lehen bazen berbazko masa batetik” abiatuak izango bagina edo. Esperantzak esperantzarik eduki beharko ez lukeenarentzako aitzakia, ameskeria. Txarrik ba al du horrek ordea? Ni ezetz nago, berez ez duela ezer txarrik. Hala ere, behin konturatuta, nola eutsi ziriari? nola segi pentsatuz hitza betidanik hortxe egon dela, izan dela...?